



**BBUP-KO LORATEGIEN ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE-LANAK EGITEKO ZERBITZUA
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA
3230. ESPEDIENTEA**

Erregulazio bateratua duen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Xabier Bikandi Markaida
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO LORATEGIEN ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE-LANAK EGITEKO ZERBITZUA 2.- Bete beharreko premiak: Lorategiak eta berdeguneak daude BBUPren jarduerak egiten diren hainbat lekutan, hala nola HUAetan, EUAetan, balbula-geletan, biltegietan eta abarretan. Hala, horiek aldizka zaindu behar dira higiene-baldintza egokiak mantentzeko, baita bertan landatuta dauden espezieak ere. 3.-Loteetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteetan banatu ez izanaren justifikazioa: Zerbitzua gauzatzeko, beharrezkoa da langileen artean eguneroko plangintza eta koordinazioa egitea, eta hori konprometituta egongo litzateke enpresa desberdinek kudeatutako loteetan banatuko balitz. Lorezaintza-zereginak makineria espezializatua behar dute (traktoreak, sastrakak kentzeko makinak, ureztatze-sistemak), eta makinak zonen artean partekatzen dira. Kontratua zatitzeak zaildu egingo luke baliabide horiek optimizatzea. Berdeguneak kontserbatzeko, irizpide tekniko eta estetiko uniformeak aplikatu behar dira (inausketa-mota, landare-espezieak, paisaia-diseinua), eta hori bermatzea zaila izango litzateke hainbat adjudikaziodunekin. Antolamenduaren ikuspegitik, lorezaintza-zereginak batera planifikatu behar diren urtaroen zikloen mende daude (ereitea, inausketa, ongarritzea). Zatikatzek plangintza hori zailduko luke. Bestalde, kontratuak gainbegiratze tekniko bakarra eskatzen du kalitate-estandarrak betetzen direla bermatzeko. Loteetan banatzeak egikaritzearen kontrola eta jarraipena zailduko lituzke.
4.- CPV: CPV kodea: 77311000-3 Deskribapena: Lorategien eta parkeen mantentze-lanak egiteko zerbitzuak
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:



B.- KONTRATUAREN XEDEA

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak:

6.-Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua

(BEZik gabe)

MILIOI BAT BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA BI
MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA
HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA
HAMALAU ZENTIMO

(1.922.457,74 €)

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: MILIOI BAT BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA BI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (1.922.457,74 €)

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

2026. urtea: 227.99.169.31 partida----- 480.614,44 €

2027. urtea: 227.99.169.31 partida----- 640.819,25 €

2028. urtea: 227.99.169.31 partida----- 640.819,25 €

2029. urtea: 227.99.169.31 partida----- 160.204,80 €

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.-Ordaintzeko modua: . BBUPko organo-eskudunak onetsitako hileroko ziurtagiriaren bidez.

8.-Ordainketak kontura: Ez da egin behar.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: HIRU (3) URTE

2.-Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.-Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

URTE BATEKO (1) BI (2) luzapen



D.- KONTRATUAREN EPEA

4.- Berme-epea: URTE BAT (1)

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren hainbat instalazio

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko da gutxienez. (640.819,24 €)

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Lizitatzailleek nahitaez egiaztatu beharko dute beren kaudimena, eta hala egin ezean prozesutik kanporatuak izango dira. Kaudimenak bat etorri beharko du kontratuaren xedearen mota edo izaera bereko lanekin, eta hori egiaztatzeke honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Kontratuaren xedearen antzeko zerbitzuen edo lanen azken hiru urteetako horniduren zerrenda. Organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako hornidurak hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea erosle pribatua denean, berriz, berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta, ziurtagirik ez badago, enpresaburuaren aitortpen baten bidez.

Baldintza hau bete beharko da: exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak kontratuaren batez besteko urterokoaren % 70 edo handiagoa izango da. Kasu honetan, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak 448.573,48 € edo gehiagokoa izan behar du.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-iritzien arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailleek kontratua egikaritzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztien deskribapen zehatza barne, jarraian adieraziko den ordenan.

1. Egingo diren lanen irismena.

- Kontratuaren beharrei buruz egiaztatutako ezagutza-maila. Egin beharreko gutxieneko lanen deskribapena, baldintza tekniko partikularren pleguan jasotako deskribapenari balio erantsia ematen diona (baldintza tekniko partikularren pleguaren kopiatze hutsak ez du inolako baliorik eransten).



BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Eskaintako zerbitzuen definizioa eta deskribapena, eskatutako gutxienekoez gain (lizitatzailleak eskaintzen baditu)
- 2 Funtzionamendu-proposamena eta lanen programazioa
 - Aurreikusitako lan-karga (prebentiboa, zuzentzailea, etab.) eta hori egiteko proposatutako lan-indarra, zeregin bakoitzerako aurreikusitako langile-orduak argi eta garbi adierazita.
 - Lanen programazioa: Jardueren iraupen justifikatua, koherentzia jardueren banaketa sekuentzialean eta lortutako xehetasun-garapen maila. Jardueren iraupen justifikatua, koherentzia jardueren banaketa sekuentzialean, lortutako xehetasun-garapen-maila, kokalekuen sakabanaketa kontuan hartuta.
 - Ureztatze-sistemak behar bezala kudeatzeko metodologia
- 3 Kontrol-sistemak
 - Kontratu honetarako aurreikusitako laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko kontrol-sistemak. Aurrerapen espezifikoak sartzea.
 - Kontratu honetarako aurreikusitako kalitate-kontrolko sistema. Lanak gauzatzeko autokontrol-plan espezifikoak sartzea.
- 4 Kontratua exekutzeko proposatutako antolamendu-egitura eta lantaldea.
 - Antolaketa-egitura eta langileen zerrenda, kontratista-delegatutik hasita beheraka.
 - Aurreko ataleko pertsonen CVA, prestakuntza eta lanbide-esperientzia jasota (gehieneko luzera: orrialde bat pertsonako).
 - Langileen presentzia eta prestasuna. Bajen eta oporren kudeaketa.
- 5 Prestakuntza-plana.
 - Langileen prestakuntza-beharrak identifikatzeko metodoa, kontratuan egin beharreko lan-ezaugarrietan oinarrituta.
 - Kontratuari esleitutako kontratistaren langileentzako prestakuntza-plana.
- 6 Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak.
 - Instalazioen deskribapena (aldagelak, tailerrak eta bulegoak).
 - NBEak eta babes kolektiboko ekipoa.
 - Erreminten eta ekipoen deskribapena. Banaketa eta adjudikazio-proposamena (komunak, pertsonalak...)
 - Ibilgailuak
 - Bitarteko osagarriak: aldamioak, garabiak, plataformak, ekipo elektrogenoak eta abar, propioak edo azpikontratatuak (azpikontratatzea aurreikusita badago, enpresa-hornitzaileekiko konpromisoa erantsi behar da).

ESKAINITZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

Lote bakoitzeko proposamen teknikoak ez ditu berrogei (40) orrialde zenbakitu baino gehiago izango, eta ezaugarri hauek beteko ditu:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea eta eranskinak 40 orrialdeen barnean zenbatuko dira. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko. 40 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 40 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.

Letra-mota eskatutakoa baino txikiagoa duen testu oro ez da kontuan hartuko.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) I. eranskinaren arabera (Prezio unitarioak) eskaintako kontratuaren prezio unitarioen zerrenda.
- b) II. eranskinaren arabera (Neurketak eta aurrekontua) neurketak eta eskaintako kontratuaren aurrekontua

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax 50 puntu
(Bmax + BM) / 2 48 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

BM	47 puntu
0,8 x BM.....	46 puntu
0,6 x BM.....	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

- **Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia..... 30 puntu**
 - Egin behar diren lanen irismena..... 10 puntu
 - Funtzionamendu-proposamenak eta programazioa15 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Kontrol-sistemak-----5 puntu
- **Kontraturako eskuragarri jarritako bitarteko teknikoak-----20 puntu**
 - Kontratua egikaritzeko proposatutako antolamendu-egitura eta lantaldea-----10 puntu
 - Prestakuntza-plana-----5 puntu
 - Lanak exekutatzeko esleitutako bitarteko materialak -----5 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiagoa. Berdinketak egonez gero, desgaitasuna duten plantillako langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillan emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 ale gutxiago dituenean.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 ale baino gutxiago dituenean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da % 25 aletik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 aletan baino gehiagotan gaituzten duten eskaintzak badaude, batez besteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko erregimenean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.



N.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatzen.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

BAI

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Nekazaritzako ingeniari titulazioa edo kontratuaren gaiaren inguruko espezialitatea duen enpresako arduraduna, kontratistaren plantillan sartuta egongo dena eta kontratu-zuzendaritzarekiko solaskide eta lanen arduradun nagusia izango dena.

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

ASEGURUAK

Kontratuaren xede diren lanak gauzatzean, adjudikazioduna sortzen diren kalteen erantzule bakarra, eta bere kabuz eta arriskupean konpondu beharko ditu.

Adjudikaziodunek aseguru-poliza bat eratu beharko dute, Preskripzio Teknikoen Agiri honen xede den Kontratua garatzen den bitartean pertsona, eraikin, instalazio edota ibilgailuetan (BBUPekoak edo hirugarrenenak) izandako kalteak estaltzeko.

BESTE GOGOETA BATZUK

BBUPen webguneko kontratatzailearen profilean, instalazioak bisitatzeko deialdi bat argitaratuko da. Eskaintzak aurkeztu nahi dituzten lizitatzzaileak joan ahalko dira, eta haiek PTPAri buruz izan ditzaketen galderei erantzungo zaie.